Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 5a, osteguna — 84 — Jueves, a 5 de mayo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*243/2022 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, gasolio profesionalaren kontsumoarengatik hidrokarburoen gaineko zerga partzialki itzultzeko prozedura ezartzen duena.*

Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 52 bis artikuluak hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partziala arautzen du erabilera profesionaleko gasolioaren kontsumoari dagokionez. Bertan ezartzen denez, lege horren 2. apartatuan aipatzen diren ibilgailuen titularrek, baldin eta apartatu horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eskubidea izango dute ordaindutako edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partziala jasotzeko, ibilgailu horien motorrean erregai gisa erabili den erabilera orokorreko gasolioari dagokionez.

Itzulketa ibilgailu hauen kasuan aplikatzen da: merkantziak errepidez garraiatzeko soilik erabiltzen diren motordun ibilgailuak edo akoplaturiko ibilgailu multzoak, garraio hori inoren edo norberaren kontura egiten denean eta ibilgailuen gehieneko pisu baimendua 7,5 tonakoa edo hortik gorakoa denean; bidaiariak modu erregularrean zein noizbehinkakoan garraiatzeko erabiltzen diren motordun ibilgailuak, Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauan ezarritako m² edo m³ kategorietan sartzen direnak (estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruzko zuzentaraua, motordun ibilgailuen eta haien atoien homologazioari dagokionez); eta taxiak. Ondorio horietarako, taxitzat hartzen da udal lizentziapean eta taximetroaz hornituta bidaiarien zerbitzu publikora bideratuta dagoen turismoa.

Itzulketaren oinarria izango da interesdunak erosi duen eta aipatutako ibilgailuetan erregai gisa erabili duen gasolio bolumena. Hala kalkulatzen den oinarria mila litrokotan adieraziko da.

Aipatutako 52 bis artikuluaren 7. apartatuak xedatzen duenez, itzulketarako prozedura ordenaren arabera ezarriko da, eta, besteak beste, honako alderdi hauek jaso ahal izango ditu: interesdunek erregistro espezifiko batean inskribatzeko duten betebeharra eta itzulketaren kudeaketarako eta egiaztapenerako garrantzitsuak diren beren jarduerari buruzko zerga aitorpenak aurkezteko duten betebeharra; interesdunek ordainbide espezifikoak erabiltzeko duten betebeharra; eta, azkenik, ordainbide espezifikoak horiek ematen dituzten entitateek eta haiek onartzen dituzten saltzaileek Zerga Administrazioari itzulketaren erabiltzaileek haiek erabili izanaren informazioa emateko duten betebeharra.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 33. artikuluan ezartzen duenez, Zerga Bereziak itundutako tributuak dira, Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatuko direnak. Artikulu horretan jasotzen denez, haien sortzapena Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen denean, foru aldundiek ordainaraziko dituzte zerga bereziak. Era berean, ezartzen du ezen lurralde historikoetako erakunde eskudunek eskumena izango dutela ai-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 243/2022, de 3 de mayo, por la que se establece el procedimiento para la devolución parcial del impuesto sobre hidrocarburos por consumo de gasóleo profesional.*

El artículo 52 bis de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, regula la devolución parcial por el gasóleo de uso profesional en el impuesto sobre hidrocarburos. En el mismo se establece que los titulares de los vehículos citados en su apartado 2, que cumplan los requisitos establecidos en dicho apartado, tendrán derecho a una devolución parcial del impuesto sobre hidrocarburos satisfecho o soportado respecto del gasóleo de uso general que haya sido utilizado como carburante en el motor de aquéllos.

Los vehículos a los que se aplica la devolución son los siguientes: los vehículos de motor o conjuntos de vehículos acoplados destinados exclusivamente al transporte de mercancías por carretera, por cuenta ajena o por cuenta propia, y con un peso máximo autorizado igual o superior a 7,5 toneladas; los vehículos de motor destinados al transporte de pasajeros, regular u ocasional, incluidos en las categorías m² o m³ de las establecidas en la Directiva 70/156/CEE del Consejo, de 6 de febrero de 1970, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros sobre la homologación de los vehículos a motor y de sus remolques; y los taxis. A estos efectos se entiende por taxi el turismo destinado al servicio público de viajeros bajo licencia municipal y provisto de aparato taxímetro.

La base de la devolución estará constituida por el volumen de gasóleo que haya sido adquirido por el interesado y destinado a su utilización como carburante en los vehículos mencionados. La base así determinada se expresará en miles de litros.

El apartado 7 del mencionado artículo 52 bis establece que el procedimiento para la práctica de la devolución se establecerá por orden y podrá comprender, entre otros, los siguientes aspectos: la obligación de que los interesados se inscriban en un registro específico y de que presenten declaraciones tributarias comprensivas de los datos de su actividad que sean relevantes para la gestión y comprobación de la devolución; la obligación de que los interesados utilicen medios de pago específicos para la adquisición del gasóleo respecto del cual soliciten la devolución; y por último, la obligación, para las entidades emisoras de los referidos medios de pago específicos y para los vendedores de gasóleo que los acepten, de proporcionar a la Administración tributaria la información derivada de la utilización de éstos por los solicitantes de la devolución.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 33 que los Impuestos Especiales tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento en el Estado, estableciendo su exacción por las respectivas Diputaciones Forales cuando su devengo se produzca en el País Vasco. Así mismo, establece que las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e

EK\CV GAO-I-2022-02777

torpen eta ordainketa ereduak onartzeko eta likidazio aldi bakoitzaren ordainketa epeak ezartzeko. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ezin dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Hortaz, itzulketa horiek egiteko prozedura ezarri behar da.

Hori dela eta, honako hau

XEDATU DUT

*1. artikulua. Aplikazio eremua.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eskumena izango du Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 52 bis artikuluaren 7.a) apartatuan aipatzen den gasolio profesionalaren onuradunen erroldan alta, baja eta aldaketa egiteko aitorpenak izapidetzeko, honako kasu hauetan:

a) Onuradunak Espainian egoiliarrak badira, zerga helbidea Gipuzkoan dutenean Ekonomia Itunean ezarritako arauen arabera.

b) Onuradunak ez badira Espainian egoiliarrak eta egoitza edo establezimendu iraunkorra Europar Batasuneko beste estatu batean badute, identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko izapideak Foru Aldundiari dagozkionean eta izendaturiko ordezkari fiskalaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

2. Norberaren kontsumoko instalazioetako gasolio profesionalaren horniduren zerrenda Ogasun eta Finantza Departamentuari aurkeztuko zaio, hark zerga itzuli dezan, establezimenduaren titularrak egoitza fiskala Gipuzkoan duenean.

3. Erroldatutako ibilgailu bakoitzak urtean egindako kilometro kopuruaren urteko aitorpena Ogasun eta Finantza Departamentuari aurkeztuko zaio, itzultzeko eskubidea duen onuraduna Gipuzkoako erroldan inskribatuta dagoenean.

*2. artikulua. Definizioak.*

Foru agindu honen ondorioetarako, definizio hauek ezarri dira:

1. «Itzulketaren oinarria». Itzulketa tasa aplikatuko zaion itzulketaren oinarria izango da interesdunak erositako gasolio bolumena, baimendutako ibilgailuetan erregai gisa erabiltzekoa, mila litrokotan adierazita.

2. «Gasolio profesionalaren ondorioz itzulketak jasotzen dituzten onuradunen eta euren ibilgailuen errolda». Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 52 bis.2 artikuluan aipatzen den hidrokarburoen gaineko zergaren zati bat itzultzeko eskubidea duten ibilgailuen titularren errolda da.

3. «Gasolio profesionalaren norbere kontsumorako instalazioen errolda». Artikulu honetako 9. apartatuan aipatzen diren instalazioen errolda da.

4. «Txikizkako identifikazio kodea».

a) Txikizkako saltzailearen identifikazio kodea (aurrerantzean, TSK), ondoren ezartzen den moduan konfiguratuta, jarduera eta establezimendu jakin batzuk identifikatzen dituena, zeinetan gasolioaren txikizkako hornidurak gertatzen diren, Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 52 bis artikuluan aitortutako itzulketa eskubidea sor dezaketenak.

b) Kodeak zortzi karaktere izango ditu, honela banatuta:

* Lurralde erregistroan inskripzioa egiten den bulego kudeatzailea identifikatzen duten bi digitu.

ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

En consecuencia, es necesario establecer el correspondiente procedimiento para la práctica de estas devoluciones.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Ámbito de aplicación.*

1. El Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa será competente para la tramitación de las declaraciones de alta, baja y modificación en el censo de beneficiarios del gasóleo profesional al que se alude en el apartado 7.a) del artículo 52 bis de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, en los siguientes casos:

a) Tratándose de beneficiarios residentes en España, cuando de acuerdo con las reglas establecidas en el Concierto Económico, tengan su domicilio fiscal en el territorio de Gipuzkoa.

b) Tratándose de beneficiarios no residentes en España, con residencia o establecimiento permanente en otro Estado miembro de la Unión Europea, cuando la tramitación para la obtención del Número de Identificación Fiscal corresponda a la Diputación Foral y el representante fiscal designado tenga su domicilio fiscal en Gipuzkoa.

2. La relación de suministros de gasóleo profesional en instalaciones de consumo propio se presentará al Departamento de Hacienda y Finanzas para su devolución, cuando el titular del establecimiento tenga su domicilio fiscal en Gipuzkoa.

3. La declaración anual con el número de kilómetros recorridos durante el año por cada vehículo censado se presentará al Departamento de Hacienda y Finanzas cuando el beneficiario con derecho a devolución esté inscrito en el censo de Gipuzkoa.

*Artículo 2. Definiciones.*

A los efectos de esta orden foral se establecen las siguientes definiciones:

1. «Base de la devolución». La base de la devolución sobre la que se aplicará el tipo de la devolución estará constituida por el volumen de gasóleo adquirido por el interesado y destinado a su utilización como carburante en los vehículos autorizados, expresada en miles de litros.

2. «Censo de beneficiarios de devoluciones por gasóleo profesional y de vehículos de su titularidad». Es el censo de titulares de los vehículos con derecho a la devolución parcial del impuesto sobre hidrocarburos a que se refiere el artículo 52 bis.2 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

3. «Censo de instalaciones de consumo propio de gasóleo profesional». Es el censo de las instalaciones referidas en el apartado 9 del presente artículo.

4. «Código de identificación minorista».

a) El código de identificación minorista (en adelante, CIM), es el código, configurado en la forma que se establece a continuación, que identifica determinadas actividades y establecimientos desde donde se producen suministros minoristas de gasóleo susceptible de generar el derecho de devolución reconocido por el artículo 52 bis de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

b) El código constará de ocho caracteres distribuidos de la forma siguiente:

* Dos dígitos que identifican a la oficina gestora en que se efectúe la inscripción en el registro territorial.


EK\CV GAO-I-2022-02777

* Establezimenduan egiten den jarduera identifikatzen duten bi karaktere, honako hauen artean:

— ES: erregai zerbitzuguneak.

— CP: norberaren kontsumorako establezimenduak.

— SU: hornitzaileak.

— VM: publikoarentzako txikizkako salmentarako gainerako establezimenduak.

* Hiru karaktere alfanumeriko.

* Kontrol letra bat.

5. «Itzulketaren gehieneko zenbatekoa». Artikulu honetako 1. apartatuan definitutako itzulketa oinarriekin bat eginez, gehienez ere 50.000 litroko kontsumoari dagokiona, ibilgailu eta urte bakoitzeko. Taxien kasuan, itzulketaren gehieneko zenbatekoa ez da 5.000 litrokoa baino handiago izango taxi eta urte bakoitzeko.

6. «Itzuli beharreko kuotak». Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 52 bis.6 artikuluan jasotakoaren arabera aplikatu beharreko tasak itzulketa oinarriari aplikatuz ateratzen diren kuotak.

7. «Entitate emailea». Ordainbideak emateari buruzko araudia betez eta zerga Administrazioak aldez aurretik baimendurik, gasolio profesionaleko txartela ematen duen pertsona edo entitatea da.

8. «Gasolio profesionala». Artikulu honetako 16. apartatuan aipatzen diren ibilgailu baimenduek erabiltzen duten erabilera orokorreko gasolioa da, baita bioerregaiekin nahasturik dagoenean ere.

9. «Norbere kontsumorako instalazioa». Erabilera orokorreko gasolioa jasotzen duen establezimendua, ondoko honetarako bakarrik baimenduta dagoena: erregaia Jarduera eta Establezimendu Kodearen kontura jasotzeko (aurrerantzean JEK) eta norbere kontsumorako instalazioen titularraren ibilgailuak instalazio berean hornitzeko. Norbere kontsumorako instalazioak uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak, Zerga Berezien Erregelamendua onartzen duenak, 40. artikuluan aipatzen duen erregistroan inskribatu behar dira.

10. «Txikizkako saltokia». Erabilera orokorreko gasolioa jendeari saldu eta zuzenean kontsumitzeko instalazio finkoak dituen establezimendua, horretan aritzeko baimenduta dagoena petrolio produktuen merkataritza arloan indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

11. «Erreferentzia aldia». Hiruhilabete naturala.

12. «Gasolio profesionaleko txartela». Zordunketa, kreditu edo erosketa txartela da, zerga Administrazioak itzulketaren xede den gasolio erosketaren berariazko ordainbide gisa baimendu duena. Bertan adierazten den ibilgailu baimendua hornitzeko bakarrik balio du. Txartelak «gasolio profesionala» esapidea erakutsiko du ongi ikusteko moduan.

13. «Erregai mota». Foru agindu honi jarraituz establezimenduek eman beharreko informazioaren ondorioetarako eta hornidurен zerrendei begira, «erregai mota» hiru digituz identifikatuko da. Digitu horiek erregaiaren biodiesel portzentajea adieraziko dute, eta portzentaje hori unitatera biribilduko da bolumenean 100eko 7tik gorakoa denean.

14. «Itzulketa tasak». Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 52 bis.6.a) artikuluan jasotako tasak izango dira.

15. «Ibilgailu baimenduaren titularra». Foru agindu honen ondorioetarako, ibilgailu baimenduaren titularra garraio alorreko agintari eskudunen erregistroetan ageri den pertsona edo entitatea izango da edo, horrelakorik ezean, trafiko, bide segurtasun

* Dos caracteres que identifican la actividad que se desarrolla en el establecimiento, de entre los siguientes:

— ES: Estaciones de servicio.

— CP: Establecimientos de consumo propio.

— SU: Suministradores.

— VM: Resto establecimientos de venta al público al por menor.

* Tres caracteres alfanuméricos.

* Una letra de control.

5. «Cuantía máxima de la devolución». La correspondiente, de acuerdo con las bases de la devolución definidas en el apartado 1 de este artículo, a un consumo máximo de 50.000 litros por vehículo y año. Cuando se trate de taxis la cuantía máxima de la devolución no excederá de la que correspondería a 5.000 litros por taxi y año.

6. «Cuotas objeto de devolución». Las resultantes de aplicar sobre la base de devolución los tipos aplicables en virtud de lo previsto por el artículo 52 bis.6 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

7. «Entidad emisora». Es la persona o entidad que, con cumplimiento de la normativa vigente en materia de emisión de medios de pago y previa autorización de la Administración tributaria, emite una tarjeta-gasóleo profesional.

8. «Gasóleo profesional». Gasóleo de uso general utilizado por los vehículos autorizados a los que se refiere el apartado 16 del presente artículo, incluso cuando el mismo se encuentre mezclado con biocarburantes.

9. «Instalación de consumo propio». El establecimiento de recepción de gasóleo de uso general, que está habilitado exclusivamente para recibir con cargo al Código de Actividad y del Establecimiento (en adelante CAE) dicho carburante, y para efectuar el suministro en la misma instalación a los vehículos del titular de las instalaciones de consumo propio. Las instalaciones de consumo propio han de inscribirse en el Registro al que se refiere el artículo 40 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio.

10. «Instalación de venta al por menor». El establecimiento que cuenta con instalaciones fijas para la venta al público para consumo directo de gasóleo de uso general y que está debidamente autorizado conforme a la normativa vigente en materia de comercio de productos petrolíferos para el ejercicio de tal actividad.

11. «Período de referencia». El mes natural.

12. «Tarjeta-gasóleo profesional». Es la tarjeta de débito, crédito o compras, que ha sido autorizada por la Administración tributaria a efecto de su utilización como medio de pago específico para la adquisición de gasóleo, respecto del cual se solicita la devolución de los impuestos, válida únicamente para el suministro del vehículo autorizado indicado en la misma. La tarjeta contendrá de modo bien visible la expresión «Gasóleo profesional».

13. «Tipo de carburante». A efectos de la información a suministrar por los establecimientos y de las relaciones de suministros efectuados, a que se refiere esta orden foral, el tipo de carburante se identificará con tres dígitos que reflejaran el porcentaje de biodiésel contenido en el carburante, redondeado a la unidad, cuando dicho porcentaje sea superior al 7 por 100 en volumen.

14. «Tipos de devolución». Serán los tipos previstos en el artículo 52 bis.6.a) de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

15. «Titular del vehículo autorizado». A efectos de esta orden foral se considerará titular del vehículo autorizado la persona o entidad que conste como tal en los registros de las autoridades competentes en materia de transporte, en su defecto,

EK\CV GAO-I-2022-02777

eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan eskumena duten agintarien erregistroetan ageri dena, dagokionaren arabera.

16. «Ibilgailu baimendua». Baimendutako ibilgailutzat hartuko dira Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 52 bis.2 artikuluan jarritako baldintzak betetzen dituzten ibilgailuak, hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeari dagokionez.

*3. artikulua. Gasolio profesionalaren ondorioz itzulketak jasotzen dituzten onuradunen eta euren ibilgailuen errolda.*

1. Ibilgailuen titular guztiei foru agindu honetan aipatzen diren itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, baldin eta, ibilgailuen motorretan gasolio profesionala kontsumitu aurretik, itzulketaren onuradunen erroldan inskribaturik badaude.

2. Errolda horretan izena emateko, eskaera bat aurkeztu beharko da.

Ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Zerga Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzeko betebeharra arautzen duena), interesdunek bitarteko elektronikoen bidez izan behar dituzte harremanak Zerga Administrazioarekin, Internet bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunetik. Aurkezpen hori foru-agindu horretan aurreikusitako baldintzen eta prozeduraren arabera egingo da.

Betebehar horren mende ez dauden interesdunek bitarteko elektronikoen bidez edo paper-euskarriaren bidez aurkeztu ahal izango dute eskabidea. Paperezko euskarria foru agindu honetan eranskin gisa erantsi den formatura egokitu beharko da.

Eskaera horretan datu hauek jasoko dira:

a) Eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ). Ezegoiliarren kasuan, itzulketaren titularraren ordezkari fiskalaren IFZ.

b) Eskatzailearen izena edo izen soziala eta helbide fiskala.

c) Jardueraren hasiera-data edo, hala badagokio, haren baja-data.

d) Finantza entitatearen identifikazioa, eta itzulketak transferitzeko erabiliko den bankuko kontuaren kodearen identifikazioa, IBAN formatukoa. Nazioarteko kontu korronteak izanez gero, SWIFT kodea jarriko da.

e) Gasolio profesionala kontsumitzen den ibilgailu bakoitzeko, datu hauek:

1.a. Ibilgailuaren matrikula.

2.a. Europar Batasuneko matrikulazio herrialdea.

3.a. Ibilgailuaren jarduera noiz hasi zen edo, hala badagokio, noiz eten zen.

4.a. Ibilgailuaren baimendutako gehieneko pisua.

5.a. Merkantziak garraiatzeko diren eta matrikula espainiarra duten ibilgailuetan, araudian garraio txartela exijitzen bada, txartelaren zenbakia jarriko da.

6.a. Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak Espainian matrikulatuta daudenean eta araudian «enpresa baimena» edukitzea exijitzen dienean, haren zenbakia adieraziko da.

7.a. Administrazio baimenik ez duten autotaxien kasuan, baimen horren ordez, udal lizentziaren zenbakia eta haren udalerria jarriko dira.

8.a. Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan matrikulatutako ibilgailuetan, egoitza estatuko araudian garraio jarduera egiteko administrazio baimena exijitzen dienean, baimen horren zenbakia eta baimena eman duen organismoaren izena jasoko dira.

la que figure como tal en los registros de las autoridades competentes en materia de tráfico, seguridad vial y circulación de vehículos a motor, según proceda.

16. «Vehículo autorizado». Tienen la consideración de vehículos autorizados los vehículos que cumplen las condiciones establecidas en el artículo 52 bis.2 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, a efectos de la devolución del impuesto sobre hidrocarburos.

*Artículo 3. Censo de beneficiarios de devoluciones por gasóleo profesional y de vehículos de su titularidad.*

1. El derecho a percibir la devolución a que se refiere la presente orden foral se reconoce a todos los titulares de vehículos que, con carácter previo a los consumos de gasóleo profesional en los motores de los mismos, se encuentren inscritos en el censo de beneficiarios de la devolución.

2. La inscripción en dicho censo estará supeditada a la presentación de una solicitud.

Aquellos interesados que en virtud de lo dispuesto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, estén obligados a relacionarse con la Administración tributaria por medios electrónicos, la solicitud se efectuará por vía electrónica a través de Internet, desde la plataforma «Zergabidea» a la que se accederá desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y desde la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas. Dicha presentación se efectuará de conformidad con las condiciones y procedimiento previsto en dicha orden foral.

Los interesados no sometidos a dicha obligación, podrán presentar la solicitud bien por medios electrónicos o a través del soporte papel. El soporte papel deberá ajustarse al formato que se adjunta como anexo en la presente orden foral.

En dicha solicitud se harán constar los siguientes datos:

a) Número de identificación fiscal (NIF) del solicitante. En el caso de no residentes, NIF del representante fiscal del titular de la devolución.

b) Nombre o razón social y domicilio fiscal del solicitante.

c) Fecha de inicio de la actividad o, en su caso, fecha de baja de la misma.

d) Identificación de la entidad financiera y del código de la cuenta bancaria, formato IBAN, a la que se efectuarán las transferencias de las devoluciones. En el caso de cuentas corrientes internacionales, el código SWIFT.

e) Los siguientes datos, por cada uno de los vehículos en los que se consuma gasóleo profesional:

1.º Matrícula del vehículo.

2.º País comunitario de matriculación.

3.º Fecha de inicio o, en su caso, de cese en la actividad del vehículo.

4.º Peso máximo autorizado del vehículo.

5.º En los vehículos de matrícula española destinados al transporte de mercancías a los que la normativa exige tarjeta de transporte, se consignará el número de la misma.

6.º En los vehículos de matrícula española destinados al transporte de personas a los que la normativa exija «autorización de empresa» se consignará el número de la misma.

7.º En el caso de auto-taxis que no dispongan de autorización administrativa concedida, en lugar de la misma se consignará el número de licencia municipal y municipio a que la misma corresponde.

8.º En los vehículos matriculados en el resto de la Unión Europea a los que la normativa de su estado de residencia exija autorización administrativa para el ejercicio de la actividad de transporte, se consignará el número de esta y el nombre del organismo expedidor de la autorización.

EK\CV GAO-I-2022-02777

3. Aurkezten diren eskaerei erregistroko zenbaki bat emango zaie, eta aurreko 2. apartatuan aipatu diren datuak behin bete ondoren, onuradunen erroldan inskribatuko dira, hala badagokie. Bestela, atzera botako dira behar bezala arrazoituta.

4. Hasierako eskaeran adierazitako datuak edo bertan aipatutako agirietakoak aldatu nahi izanez gero, aldaketa paperean zein internet bidez aurkeztuko beharko da. Modu horretan ere jakinaraziko da itzulketarako eskubidea sortzen duen jarduera uzten dela edo jarduera horretan aritzeko ibilgailuak erabileraz kanpo geratu direla.

Ogasun eta Finantza Departamentuak ofizioz jardun ahal izango du inskribatutako onuradunen eta ibilgailuen erroldan zerbait aldatu edo baja emateari dagokionez.

*4. artikulua. Gasolio profesionaleko txartelak baimentzea.*

1. Zerga Administrazioak baimendu beharko ditu gasolio profesionaleko txartelak, betiere zergen itzulketaren xede den gasolioa erosi eta ordaintzeko berariazko baliabide gisa erabili daitezen. Horretarako, entitate emaileek eskatu behar dute gasolio profesionaleko txartelak txartelen erregistroan inskribatzeko, eta baimen zenbaki bat emango zaie Zerga Administrazioarekiko harremanetan erabiltzeko. Inskripzio hori baimena izango da entitate berak merkataritza izen berberarekin ematen dituen txartel guztietarako.

2. Eskaerak datu hauek jasoko ditu gutxienez:

a) Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

b) Entitateak ez badira Espainian egoiliarrak, EBko beste estatu batean egoitza edo establezimendu iraunkorra badute eta Espainian helbideratutako ordezkaria badute, entitateak Espainian duen ordezkariaren IFZ.

c) Txartelaren merkataritza izena.

3. Baimenak balioa izan dezan, gasolio profesionaleko txartelak eta berau kudeatzeko eta bere erabilera kontrolatzeko sistemak baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gasolio profesionaleko txartela ibilgailu baimenduaren titularraren izenean eman beharko da, eta bertan titularraren izena edo sozietate izena eta ibilgailu baimenduaren matrikula agertu beharko dira.

Txartel hori Europar Batasunean egoiliarrak diren pertsona edo entitateen izenean emango da, barruko lurralde esparrukoak aparte utzita, betiere azken horretan establezimendu iraunkorrik ez badute eta aldez aurretik erroldaturiko ibilgailu baten titularrak badira.

b) Txartela ematen duen entitateak kudeaketa sistema bat ezarri beharko du gasolio profesionaleko txartelarekin abonuaren kontra eginiko horniduren zerrendak aurkezteko, foru agindu honen 6.1 artikuluan xedatutako eran.

c) Gasolio profesionaleko txartelak ematen dituzten entitateek haiek baimentzeko obligazioak betetzen ez dituztenean, Zerga Administrazioak baliorik gabe utzi ahal izango du txartelen baimena, artikulu honen 1. apartatuan aipatua.

*5. artikulua. Gasolioa txikizkako saltokietan hornitzea.*

Ibilgailu baimenduek txikizkako saltokietan egiten dutenean gasolio horniketa, zergen itzulketa aitortu eta gauzatu ahal izateko ezinbestekoa izango da saltoki horietan hornitutako gasolioa gasolio profesionaleko txartelaren bidez ordaintzea.

Ondorio horietarako, ulertzen da onuradunek txartel hori gasolioa ordaintzeko erabiltzea itzulketa eskatzeko aurkezten den zerga aitorpena dela.

3. A las solicitudes presentadas se les asignará un número de registro y una vez cumplimentados los extremos citados en el apartado 2 anterior, se producirá, si procede, la inscripción en el censo de beneficiarios. En caso contrario serán rechazadas motivadamente.

4. Cualquier modificación ulterior de los datos consignados en la solicitud inicial o que figuren en la documentación referida en la misma deberá ser presentada, bien en soporte papel bien por Internet. De igual modo deberá comunicarse el cese en la actividad que genera el derecho a la devolución o la inutilización de los vehículos para el desarrollo de dicha actividad.

El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá, en su caso, actuar de oficio respecto de la modificación o baja en el censo de beneficiarios y de vehículos inscritos en el mismo.

*Artículo 4. Autorización de las tarjetas-gasóleo profesional.*

1. Las tarjetas-gasóleo profesional deberán ser autorizadas por la Administración tributaria, a efectos de su utilización como medio específico de pago para la adquisición de gasóleo, respecto del cual se solicita la devolución de los impuestos. Para ello, las entidades emisoras deberán solicitar la inscripción de dichas tarjetas en el Registro de tarjetas-gasóleo profesional y se les concederá un número de autorización, que utilizarán en sus comunicaciones con la Administración tributaria. Dicha inscripción constituirá la autorización para todas las tarjetas que con la misma denominación comercial sean emitidas por una misma entidad.

2. La solicitud contendrá, al menos, los siguientes datos:

a) Número de Identificación Fiscal (NIF).

b) En el supuesto de entidades no residentes en España, con residencia o establecimiento permanente en otro estado miembro, que dispusieran de representante domiciliado en España, NIF del representante de la entidad en España.

c) Denominación comercial de la tarjeta.

3. La validez de la autorización queda condicionada, a su vez, a que la tarjeta-gasóleo profesional y el sistema de gestión y control del uso de la misma cumplan con las siguientes condiciones:

a) La tarjeta-gasóleo profesional deberá ser emitida a nombre del titular del vehículo autorizado y en ella habrá de constar el nombre o razón social de dicho titular y la matrícula del vehículo autorizado.

Esta tarjeta podrá ser emitida a nombre de personas o entidades residentes en el ámbito territorial comunitario, distinto del ámbito territorial interno y que no dispongan de un establecimiento permanente situado en este último, siempre que sean titulares de un vehículo censado previamente.

b) La entidad emisora de la tarjeta deberá establecer un sistema de gestión que le permita la presentación de las relaciones de suministros efectuados contra su abono con la tarjeta-gasóleo profesional, en los términos previstos en el artículo 6.1 de esta orden foral.

c) La autorización de las tarjetas a que se refiere el apartado 1 de este artículo, podrá ser revocada por la Administración tributaria, cuando por las entidades emisoras de las tarjetas-gasóleo profesional se incumplan las obligaciones exigidas para su autorización.

*Artículo 5. Suministro de gasóleo en instalaciones de venta al por menor.*

Cuando el gasóleo se suministre a los vehículos autorizados en instalaciones de venta al por menor, el reconocimiento y efectividad de la devolución de los impuestos estará condicionado a que el pago del gasóleo suministrado en estas instalaciones se efectúe por medio de la tarjeta-gasóleo profesional.

A estos efectos, la utilización para el pago por los beneficiarios de dicha tarjeta tiene la consideración de declaración tributaria por la que se solicita la devolución.

Gasolio profesionaleko txartela ordainbide gisa onartzen duten instalazioen titularrak behartuta egongo dira txartelak ematen dituzten entitateei foru agindu honen 5. artikuluko b), c), d), e), f) eta g) letretan aipatzen den informazioa adieraztera erreferentzia aldi bakoitzean eginiko hornidura bakoitzari buruz.

*6. artikulua. Itzulketarako eskubidea duten horniduren zerrenda.*

Txartelak ematen dituzten entitateek horniduren informazioa helaraziko diote Zerga Administrazioari, hornidurak egin eta astebeteko epean. Behar bezala justifikatutako anomalia teknikoek eragindako ezohiko zirkunstantzien kasuan, epe hori hilabetera luzatu ahal izango da. Informazioa bidaltzeko, Ogasun eta Finantza Departamentuak ezartzen dituen zehaztapen teknikoak bete beharko dira. Zehaztapen horiek aipatutako departamentuaren webgunean eskura daitezke.

Txartelak ematen dituzten entitateek, haietariko bakoitzarengatik, honako hau adierazi beharko dute hornidura bakoitzerako:

a) Egindako hornidura islatzen duen kontabilitateko erregistroaren banakako identifikadorea edo, hala bada, eginiko doiketa positibo edo negatiboarena.

b) Zer txikizkako saltzaileren kontura egiten den hornidura. Txikizkako Saltzailearen Identifikazio Kodea adieraziko da (aurrerantzean TSK).

c) Ibilgailu baimenduaren matrikula.

d) Titularraren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

e) Horniduraren data eta ordua.

f) Hornituriko erregai litroak.

g) Erregai mota, baldin eta aplikatzekoa bada urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak, gasolinaren, gasolioaren, fuelolioaren eta petrolioaren gas likidotuaren zehaztapenak ezarri eta bioerregai batzuen erabilera eta itsas erabilerako erregaien sufre edukia arautzekoak, 8.4 artikuluan xedatutakoa. Erregai mota hori foru agindu honen 2. artikuluko 13. apartatuan ezarritakoari jarraikiz adieraziko da.

*7. artikulua. Gasolioa norbere kontsumorako instalazioetan hornitzea.*

Norbere kontsumorako instalazioen titularrak foru agindu honen 3. artikuluan aipatutako erroldan sarturik badaude eta instalazio horietan horniketa leku bat baldin badute erositako gasolioaren kontsumo propiorako, foru agindu honen 2. artikuluko 9. apartatuan jasotako eran, honako baldintzak bete beharko dituzte itzulketa lortzeko:

1.a. Establezimendua Gipuzkoan badago, Ogasun eta Finantza Departamentuaren erregistroan inskribatzea, Zerga Berezien Erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

2.a. Kontabilitate sistema informatiko bat edukitzea, salmenta aparatuekin integratua, Ogasun eta Finantza Departamenduak onetsia, instalazioa Gipuzkoan dagoenean. Kontabilitate horrek instalazioetan jasotako gasolioaren mugimendua adierazi beharko du, eta baliagarria izan beharko du hornidura bakoitzaren datu zehatzak lortzeko, foru agindu honen 6. artikuluan ezartzen denaren arabera. Txikizkako identifikazio kodea (TSK) aipatu beharrean, jarduera eta establezimendu kodea (JEK) jarriko da. Kontabilitate sistema horrek gutxienez datu hauek jaso beharko ditu:

a) Karguan adieraziko da erabilera orokorreko zenbat gasolio jaso den une bakoitzean eta zein datatan jaso den. Era berean, hornitzailearen izena edo sozietate izena eta haren IFZ edo, kasua balitz, JEK kodea ere jarriko dira. Orobat, erabilera

Los titulares de las instalaciones en las que se acepte la tarjeta-gasóleo profesional como medio de pago, quedarán obligados a suministrar a las entidades emisoras de las mismas la información por cada suministro efectuado en cada período de referencia, a que se refieren los incisos b), c), d), e), f) y g) del artículo 6.1 de esta orden foral.

*Artículo 6. Relación de suministros con derecho a devolución.*

